

## NOTA DE PRENSA

# CPAEN/NNPEK premia al agricultor Jesús Aranda y al Ayuntamiento de Noáin en su 25 aniversario

*Este viernes el sector ecológico de Navarra ha entregado los Premios CPAEN/NNPEK 2021. La asamblea general de CPAEN/NNPEK ha sido el marco elegido para la celebración del acto, en el que el agricultor y primer presidente de CPAEN/NNPEK Jesús Aranda ha recibido el premio a Toda Una Vida dedicada a la Agricultura Ecológica y el Ayuntamiento de Noáin el Premio a la Entidad Colaboradora. A las 17:00 horas dará comienzo la VI. Feria Navarra Ecológica en el Parque de los Sentidos de Noáin.*

Hoy se ha realizado la asamblea general de CPAEN/NNPEK en el que han participado alrededor de 60 operadoras ecológicas de todo Navarra. Además, de presentar las cuentas generales de CPAEN/NNPEK se ha explicado el trabajo realizado en certificación, promoción y proyectos. Para finalizar la asamblea, que ha contando con una gran participación, se han entregado los V Premios CPAEN/NNPEK.

Este año los premios se enmarcan dentro del 25 aniversario de la entidad, que comienza hoy viernes a las 17:00 horas en el Parque de los Sentidos de Noáin. Los galardones han recaído, por una parte, en el agricultor de Falces y primer presidente de CPAEN/NNPEK (1996-2001) Jesús Aranda, y el Ayuntamiento de Noáin, por su apuesta por la agricultura ecológica en la localidad. Mirian Otxotorena presidenta de CPAEN/NNPEK ha sido la encargada de entregar los galardones, que ya van por su quinta edición.

### **Jesús Aranda, premio a toda una vida**

Jesús Aranda lleva más de 30 años comprometido con la producción ecológica. Inició su actividad en el grupo ecologista de su localidad natal, Falces, involucrándose cada vez más a través de Biolur. Jesús fue el primer presidente de CPAEN/NNPEK, desde 1996 a 2001, y antes estuvo dos años de forma provisional, cuando el Consejo Regulador todavía no existía. Fue uno de los precursores de CPAEN/NNPEK.

Junto a su familia, creó la empresa Ecológicos Aranda, de tradición agrícola y ganadera de Falces. Abarca desde la producción de oliva y elaboración de aceite, cultivo de forrajes y cereales, servicios de ensilaje, hasta la gestión de su propio carnicería y ecotienda, siempre con perspectiva ecológica y avanzando en técnicas biodinámicas de cultivo. Para esta

multifuncionalidad, Jesús Aranda es el encargado de la parte agrícola de la empresa familiar; su mujer Blanca Guembe, encargada de la gestión de la carnicería y sus hijas, Edurne y losune Aranda, responsables de la ecotienda.

En los inicios la actividad familiar principal fue la ganadería ovina, que llevaron a cabo durante 25 años. En 2010 se iniciaron en la producción de aceite, siendo hoy en día el eje principal de la empresa familiar. Estas plantaciones de olivos desde un inicio están planteadas con principios biodinámicos, influyendo mínimamente en el entorno, manteniendo los flujos de agua y charcas, así como los cerros. En la actualidad organizan visitas guiadas e imparten todo tipo de talleres acordes a su modo de vida de respeto y mantenimiento del medio. Todos los meses acude al EKOmercado con su aceite de oliva virgen extra, galardonado el año pasado en Ecotrama con la medalla de plata.

### **Ayuntamiento de Noáin: Premio a Entidad Colaboradora**

El Ayuntamiento de Noáin-Valle de Elorz lleva años mejorando el municipio a través de la jardinería ecológica con plantaciones de arbolado, creación de pequeños jardines y parterres de flor. Desde el 2006, además, cuenta con el Parque de los Sentidos, que tiene una gran acogida tanto en el municipio como en toda Navarra, siendo un espacio de referencia con más de 250 variedades de plantas.

En la actualidad Noáin es un ejemplo en temas como la sostenibilidad local, la jardinería y la agricultura ecológica, la bioconstrucción, el cambio climático, las energías renovables y la eficiencia energética. CPAEN/NNPEK ha querido premiar su firme apuesta por la producción ecológica y la sostenibilidad, así como por todas las facilidades y la buena acogida para celebrar en el Parque de los Sentidos el 25 aniversario de la entidad.

### **Aniversario CPAEN/NNPEK y VI. Feria Navarra Ecológica**

El Parque de los Sentidos de Noáin acoge desde hoy hasta el domingo el 25 aniversario de CPAEN/NNPEK y la VI Feria Navarra Ecológica. La producción ecológica de Navarra cumple 25 años y lo celebra en Noáin con un interesante programa: zona eco gastronómica, exposición ganadera de razas autóctonas, actuaciones, animación musical, charlas, talleres, sorteos, zona infantil... La cita arranca hoy a las 17:00 h, continuará el sábado en horario de mañana y tarde y culminará el domingo por la mañana, con el cierre previsto a las 14:30 h. 35 puestos de alimentos ecológicos esperan a un público que podrá entretenerse, disfrutar de las actividades y comprar directamente a las personas productoras. Toda la información se encuentra en [www.navarraecologica.org](http://www.navarraecologica.org)

Si necesitas más información puedes ponerte en contacto con CPAEN-NNPEK a través del email [prensa@cpaen.org](mailto:prensa@cpaen.org) así como en el teléfono 600 32 51 23

## PRENTSA-OHARRA

# CPAEN/NNPEKk Jesus Aranda nekazaria eta Noaingo Udala saritu ditu bere 25. urteurrenean

*Ostiral honetan, Nafarroako sektore ekologikoak CPAEN/NNPEK 2021 sariak banatu ditu. CPAEN/NNPEKren batzar nagusian izan da sari-banaketa. Bertan, Jesus Aranda nekazariak eta erakundeko lehen presidentek Nekazaritza Ekologikoari eskainitako Bizitza saria jaso du, eta Noaingo Udalak Erakunde Laguntzailearen saria. Bestalde, 17:00etan hasiko da VI. Nafarroako Azoka Ekologikoa Noaingo Zentzumenean Parkean.*

Gaur goizean CPAEN/NNPEKren batzar nagusia egin da, eta 70 bat operadore ekologikok hartu dute parte. Bertan, erakundearen kontuak aurkeztu dira, eta ziurtapen, sustapen eta proiektu departamentuek egindako lana aurkeztu da, besteak beste. Parte hartze handia izan du batzarrak eta amaitzeko, V. CPAEN/NNPEK sariak banatu dira.

Aurten sariak oso bereziak izan dira, erakundearen 25. urteurrenaren barruan kokatzen baitira. Batetik, Faltzesko Jesus Aranda nekazaria, CPAEN/NNPEKeko (1996-2001) lehen presidentea izan dena saritu da. Bestetik, Noaingo Udalak herriko nekazaritza ekologikoaren alde egindako apustua nabarmendu da. Mirian Otxotorena CPAEN/NNPEKeko presidentek eman ditu sariak.

### **Jesus Aranda, bizitza osoko saria**

Jesus Arandak 30 urte baino gehiago daramatza mundu ekologikoarekin konprometituta. Faltzesko talde ekologistan hasi zen, eta horren ondoren Biolur elkartearen bidez jarraitu zuen nekazaritza ekologikoan. Jesus CPAEN/NNPEKeko lehen presidentea izan zen 1996tik 2001era, eta aurretik bi urtez egon zen behin-behinean, Kontseilu arautzailea oraindik existitzen ez zenean. CPAEN/NNPEKeko bultzatzaile bat izan da.

Bere familiarekin batera, nekazaritza eta abeltzaintza tradizioko Ecológicos Aranda enpresa sortu zuen. Bertan lanean dihardu oliba eta olio-ekoizpenean, bazka eta zerealen laborantza, silotze-zerbitzuak eskaintzen ditu; baita harategia eta ekodenda dute ere, betiere ikuspegi ekologikoarekin eta teknika biodinamikoetan aurrera eginez. Jesus Aranda familia-enpresako nekazaritza-arloko arduraduna da; Blanca Guembe emaztea harategiaren kudeaketaz arduratzen da, eta Edurne eta losune Aranda alabak, ekodendako arduradunak dira.

25 urtez, familia-jarduera nagusia ardi-azienda izan zen. 2010ean olioa ekoizten hasi ziren, eta gaur egun familia-enpresaren ardatz nagusia da. Olibondoen landaketa horiek hasieratik printzipio biodinamikoekin planteatu dira, eta ingurunean eragin txikia dute, ur-fluxuak, putzuak eta muinoak mantenduz. Gaur egun, bisita gidatuak antolatzen dituzte eta mota guztietako tailerrak ematen dituzte. Hilero joaten da EKOMerkatura bere oliba-olio birjina estrarekin, iaz Ecotraman zilarrezko domina irabazi zuena.

### **Noaingo Udala: erakunde Laguntzailearen Saria**

Noain-Elortzibarko Udalak urteak daramatza herria hobetzen lorezaintza ekologikoaren bidez, zuhaitz-sailak, lorategi txikiak eta lore-parterrak sortuz. 2006az geroztik, gainera, Zentzumenen Parkea du, eta horrek harrera bikaina du bai udalerrian bai Nafarroa osoan ere, 250 landare mota baino gehiago dituen erreferentziatzko gunea baita.

Gaur egun, Noain eredugarria da tokiko iraunkortasuna, lorezaintza eta nekazaritza ekologikoa, bioeraikuntza, klima-aldaketa, energia berriztagarriak eta energia-eraginkortasuna bezalako gaitan. CPAEN/NNPEKek ekoizpen ekologikoaren eta jasangarritasunaren alde egindako apustu sendoa saritu nahi izan du, baita erakundearen 25. urteurrena ospatzeko erraztasun guztiak eta izan duen harrera ona ere.

### **CPAEN/NNPEK urteurrena eta Nafarroako VI. Azoka Ekologikoa**

Noaingo Zentzumenen Parkeak CPAEN/NNPEKen 25. urteurrena eta Nafarroako VI. Azoka Ekologikoa hartuko ditu gaurtik igandera. Nafarroako ekoizpen ekologikoak 25 urte bete ditu eta Noainen ospatuko du programa interesgarri batekin: merkatu ekologikoa, eremu ekogastronomikoa, arraza autoktonoen abeltzaintza erakusketa, emanaldiak, musika animazioa, hitzaldiak, tailerrak, zozketak, haurrentzako gunea...

Hitzordua gaur 17: 00etan hasiko da, larunbatean goizez eta arratsaldez jarraituko du eta igande goizean amaituko da, 14:30ean ixtea aurreikusita baitago. Elikagai ekologikoen 35 ekoizle bertan izanen dira, haiei beraiei zuzenean erosteko aukera egonen da, asteburu ekologikoaz disfrutatzen. Informazio guztia hemen dago: [www.navarraecologica.org](http://www.navarraecologica.org)

Informazio gehiago behar izatekotan CPAEN-NNPEK-ekin harremanetan jarri zaitezke [prensa@cpaen.org](mailto:prensa@cpaen.org) helbideetara idatziz eta baita 600 32 51 23 telefono zenbakian ere.